

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak 22.000 pentsio osatuko ditu 2017an, % 8ra arteko igoerekin

*% 8 igoko dira alarguntasun-pentsioetarako kenkari fiskalak, eta zenbateko txikiagoko gainerako kotizaziopeko pentsioak hiru urtetan parekatuko dira*

Asteazkena, 2017.eko otsailak 15

Nafarroako 22.000 pentsioduni osatuko zaizkie beren pentsioak 2017an, % 8ra arteko igoerekin, Miguel Laparra Eskubide Sozialesko lehendakariordeak gaurko Gobernuaren saioaren ondorengo prentsaurrekoan jakinarazi duenez. Batetik, % 8 handituko dira alarguntasun-pentsioetarako kenkari fiskalak 2017an eta, bestetik, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatara iristen ez diren kotizaziopeko pentsioak pixkanaka igotzen joango dira, hiru urtetan alarguntasun-pentsio berriekin parekatu arte.



Nafarroako 22.000 pentsionistari osatuko zaizkie bere pentsioak 2017an.

Kostuen eta ondorio sozialen azterketa egin ondoren gaur Gobernuari aurkeztu zaion proposamenak planteatzen du 2017an % 8 igotzea alarguntasun-pentsioetarako kenkari fiskala; hau da, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatak izan duen igoera bera. Igoera horrek 9.490 bat alarguni eragingo dio; horietatik % 98 emakumeak dira. Horrek eskatzen du inbertsio soziala % 300 baino gehiago handitzea; 3,2 milioi eurokoa izan zen 2016an, eta 2017an 10 milioikoa izatea aurreikusten da.

Halaber, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata baino errenta txikiagoa duten kotizaziopeko pentsioak jasotzen dituzten eta alarguntasun-pentsioen kenkari fiskalik jasotzen ez duten pertsonen osagarri bat izango dute 2017. urtetik aurrera, hiru urtez, beren pentsioak 2017ko Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatzeko. 707,60 eurokoa da gutxieneko soldata hori (hileko 825,53 euro, aparteko ordainsarien berdinbanaketarekin). Kolektibo horretan, emakumeak dira % 56, eta gizonezkoak % 44.

Horrela, 2016ko Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata baino diru-sarrerera txikiagoak dituzten pentsionista guztiek % 2ko igoera izango dute beren diru-sarreretan; horri gehitu behar zaio 2016ko Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren eta jasotzen zuten zenbatekoaren arteko aldea. Hau da, hileko 668,30 euro, edo 779,6 euro, aparteko ordainsariak

berdinbanatuta. 2018an eta 2019an, pertsona horiek % 3ko beste igoera bat izango dute urte bakoitzeko; horrek esan nahi du, 2019. urterako, alarguntasun-pentsioekin erabat parekatuko direla beren errentak.

Aurreikusita dagoenez, bigarren neurri horrek gaur egun Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata baino pentsio txikiagoak jasotzen dituzten eta, beraz, alarguntasun-pentsioak jasotzen dituzten pertsonekin alderatuta desabantaila egoeran dauden 12.466 onuradun izango ditu. Aurreikusten denez, 2019an erabat garatuta dagoenean, neurri hori abian jartzeko egin beharreko inbertsio soziala urte bakoitzeko 9,6 milioi eurokoa izango da. Eskubide Sozialetako Departamentuak –Gizarte Segurantzarekin datuak kontrastatuta– egindako kalkuluen arabera, 2016ko abenduan, hileko 408,10 euroko ZBNS (zahartzaro eta baliaezintasuneko nahitaezko sorospena) pentsioak zituzten 53 pertsona zeuden Nafarroan; 65 urtez azpiko pertsona bakarrek titularren 1.818 pentsio, hileko 586,50 eurokoak; hileko 627,7 euroko 8.871 pentsio; eta 1.724 lagun, hileko 677 euroko batez besteko pentsioarekin. Lehendabiziko hiru taldeei % 63,7, % 12 eta % 4,8, hurrenez hurren, igoko zaie jaso beharreko zenbatekoa 2017an; eta laugarrena, berriz, % 3,41 igoko da 2018an. 2018an jasoko dituzte zenbateko osagarriak, 2017ko errenta-aitorpena egiten dutenean; eta 2019an, berriz, 2018an igoko diren pentsioen kasuan.

Pentsio guztiak parekatzeko prozesua amaitzen denean, urtero 16,6 milioi euroko inbertsio soziala egin beharko dela zenbatesten da alarguntasun-pentsio guztiak eta Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataz azpiko kotizaziopeko pentsioak osatzeko; horrek esan nahi du bost aldiz handituko dela inbertsioa, gaur egunekoarekin alderatuta.

### **Erosahalmen-mailari eustea**

Nafarroako Gobernuaren proposamenak jasotzen du hurrengo urteetan pentsio horiek guztiak –gehi Nafarroak ematen duen osagarria– birbaloratzea, Nafarroako KPI handitzen den neurri berean, pentsionisten ez dezaten erosahalmen-maila galdu.

Eskubide Sozialetako lehendakariordeak neurri horien balorazio oso positiboa egin du; izan ere, "programa-akordioan ezarritako helburu bikoitza lortzea dakar; hau da, alarguntasun-pentsioak hobetzea eta abantaila egoeran zeuden pentsionistak parekatzea".

"Badakigu pentsio-sistema eta gizarte-segurantza gobernu zentralaren ardura direla, eta hobe izango litzatekeela gobernu zentralak hartzea bere gain jende guztiak gutxieneko pentsio duin bat izateak dakarren kostua, baina, nolana ere, Nafarroako Gobernuak uste du, kontuan hartuta Nafarroan dugun bizitza-kostuaren aldea eta Gobernu honek lehentasuna ematen diola alderdi sozialari, beharrezkoa dela guk geuk egitea ahalegin bat egoera ekonomiko eskasagoan dauden adineko pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko", azpimarratu du Laparrak.

### **Laguntzako pentsioak**

Alarguntasun-pentsioak eta kotizaziopeko pentsioak jasotzen dituzten 22.000 pentsionista ingururi eragingo dieten neurri horiez gain, Errenta Bermatua 65 urtetik gorakoei zabaldu izanari esker, zenbatesten da laguntzako pentsioak jaso eta Errenta Bermatua baino kopuru txikiagoak jasotzen dituzten 1.300 familia-unitatek prestazio horretan ezarritako zenbatekora arteko aldea estaliko duen osagarri ekonomikoa jasoko dutela 2017an. Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideari buruzko Foru Legearen Proiektuaren txosten ekonomikoan jasotzen denaren arabera, neurri horrek kolektibo horri bideratutako urteko 5 milioi euro inguruko inbertsio soziala eskatzen du.